

## / Nabarmentzekoak

- > Migrazioen Harrera eta Arretarako Bulegoa inauguratuta (2. or.)
- > "Biobizz Getxo", munduko J80 txapelketako txapeldunordea Danimarkako uretan (4. or.)
- > Udalak sufrimendu emozionala eta nahi gabeko bakardadea arintzeko "Activa tu comunidad" eta "Getxo ZUrt" ekimenak bultzatuko ditu (4. or.)



Now You See Me Moria

**Antzerkia.** Hilak 24, larunbata, 19:00etan, Muxikebarrin, "Desfasando, que es gerundio", Lalulu Teatrotan. Sarrera: 12€.

**A-  
GENDA**

**LXVI Nazioarteko Paella Lehiaketa.** Hilak 25, igandea, Streaming bidez #Paellak2021 traolaren eta Itxas Argiaren sare sozialen bitartez.

18 eta 35 urte bitarteko getxotarrentzat dira

## Gazteek etxebizitza alokatzeko eta emantzipatzeko laguntzetan izena emateko epea zabalik

Datorren urriaren 13ra arte izena emateko epea zabalik egongo da gazteek etxebizitza alokatzeko eta emantzipatzeko laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko. Laguntza horietarako 250.000€ bideratuko dira. Deialdi honen xedea da gehien bat laguntza eskaintzea Getxoko 18 eta 35 urte bitarteko gazteen emantzipazio prozesuan eta helduen munduan sartzerakoan, eta udalerriko eremu guztietan alokairu araubideko etxebizitza batera sarbide izatea sustatzea. Zehazki, laguntza horien helburu nagusia Getxon bizi diren gazteen ohiko etxebizitzaren alokairuaren parte bat ordaintzen laguntzea da.

Errentamendu gastuei dagokienez, gastuok ezingo dira izan hileko 900 € baino gehiagokoak, oinarrietan jasotako salbuespeneko kasuetan izan ezik. Alokairuaren kontzeptutik kanpo geratuko dira eranskinak, besteak beste: garajeak, trastelekuak, erkidegoko gastuak eta administrazio-gastuak.

Dirulaguntza pertsona onuradunak hartutako alokairuaren gastuaren zati bat ordaintzeko emango da, deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzen arabera. Errentamendu kontratua sinatuta egon beharko da 2018ko irailaren 29tik aurrera eta 2019ko abenduaren 31ra, eta gehienez 12 hilabetez izango da dirulaguntzak bete behar duen aldia.

Dirulaguntzak jaso ahal izateko, bizikidetzaren unitateek ezingo dituzte gehieneko diru-sarrerara hauek gaitu:

- Urtean 25.000 € gordin, norberaren izenean, bizikidetzaren unitatea A edo B motakoa bada.
- Urtean 39.000 € gordin, biren artean, bizikidetzaren unitatea C motakoa bada.



|   |  |
|---|--|
| A | Pertsona bakarrekoa, pertsona bakarra denean kontratuaren titularra, eta bera bakarrik bizi denean alokatutako etxean.   |
| B | Beren bizitokia den etxebizitzaren kontratuko titular gisa pertsona bat baino gehiago agertzen bada, baina ez badaude ezkondua edo izateko bikoteen erregistroan izena emanda. |
| C | Beren bizitokia den etxebizitzaren kontratuko titular gisa pertsona bat baino gehiago agertzen bada, eta ezkondua edo izateko bikoteen erregistroan izena emanda badaude.      |

Laguntzen zenbatekoak honako hauek izango dira:

| DIRU-SARRERA GORDINAK € | HILEKO ERRENTAREN GAI-NEKO % | GEHIENKO ZENBATEKOA (€ /HILEAN) |
|-------------------------|------------------------------|---------------------------------|
| 0-9.000€                | %50                          | 450€                            |
| 9.001-18.000€           | %40                          | 360€                            |
| 18.001-25.000€          | %30                          | 270€                            |
| 25.001-39.000€          | %20                          | 180€                            |

Eskaera norberaren izenean egingo da, bizikidetzaren unitate edozein motakoa delarik ere. Horretarako, dagokion eskabideak aurkeztu beharko da eredu normalizatua erabilita. Azken hori herritarren eskura dago Algorta eta Aretako Herritarrentzako Arreta Bulegoetan (HAB) eta udalaren webgunean.

Dirulaguntzak emateko eskabideak aurkezpen ordenari jarraituko zaio, harik eta aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa agortu arte.

Oinarriak, eskabide-orka, informazioa eta gida eskaera online egiteko:

<https://www.getxo.eus/eu/vienda/noticias/46>



## Itxartu Taldeak hasiera emango dio Nazioarteko Folklore Jaialdiari

Itxartu Dantza Taldeak Nazioarteko Folklore Jaialdia irekiko du ostiral honetan, uztailaren 16an, Muxikebarrin. Emanaldia, programatutako gainerakoak bezala, 19:00etan izango da, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da eguneko (oraingoan, ez dago abonurik). Larunbatean, hilak 17, Trim the Velvet (Belfast-Ipar Irlanda) taldea igoko da oholtzara eta igandean Jammu (Dakar-Senegal) balletaren txanda izango da. Hasiera batean bi

taldeen emanaldiak alderantzikatuta egon arren, sarre-arak alde aurretik erosi dituztenek egunean bertan erabili ahal izango dituzte, aldatu beharrik gabe, eta dirua itzultzeko eskatzen dutenek Muxikebarriko leihatilan egin ahal izango dute (erosketak eskudirutan edo datafonoarekin egiteko) edo [sarreraitzulketa@getxo.eus](mailto:sarreraitzulketa@getxo.eus) helbidera idatziz (online edo zerbitzu anitzeko kutxazainen bidez egin badira).



## UZTAILAK 15 OSTEGUNA

**Odola ateratzea.** Areetako Geltokia Plazan, goizez eta arratsaldez.

**Getxoarte. Udako Jaialdia.** Arte publikoari buruzko hizketaldia. 19:00etatik 21:00etara, Darío de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegaren ondoan), ADI Bulegoaren eta TEO Arkitekturaren eskutik. Euskaraz. Toki mugatuak. Izen-ematea: [getxoarte@getxo.eus](mailto:getxoarte@getxo.eus)

## UZTAILAK 16 OSTIRALA

**36. Nazioarteko Folklore Jaialdia** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, Itxartu Dantza Taldea (Getxo). Sarrera: 3€.

**Getxoarte: Udako jaialdia.** Arte publikoari buruzko hizketaldia. 19:00etatik 21:00etara, Darío de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegaren ondoan), Veva Linaza eta Unai Requejoren eskutik. Euskaraz eta gaztelaniaz. Plaza mugatuak. Izen-ematea: [getxoarte@getxo.eus](mailto:getxoarte@getxo.eus)

## UZTAILAK 17 LARUNBATA

**36. Nazioarteko Folklore Jaialdia** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, Ballet Jammu (Senegal). Sarrera: 3€.

**Getxoarte: Udako jaialdia.** Familiarako aire zabaleko pintura-lehiaketa. Algorta, 9:00etatik 15:00etara. Ikusi oinarriak [www.getxo.eus/getxoarte](http://www.getxo.eus/getxoarte) webgunean. Ibilbide artistikoa: Arte publikoa. 11:00etatik 13:00etara, "In Memoriam", Arantxa Pedrarekin. Gaztelaniaz. Irteera: Darío de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegaren ondoan). Amaiera: Oroimenaren liburua eskultura (Aixerrota). 3 km. Leku mugatuak. Izen-ematea: [getxoarte@getxo.eus](mailto:getxoarte@getxo.eus). Arte publikoari buruzko hizketaldia. 19:00etatik 21:00etara, Darío de Regoyosen

omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegaren ondoan), Esteban Ramos eta Mikel Erkiagaren eskutik. Gaztelaniaz. Plaza mugatuak. Izen-ematea: [getxoarte@getxo.eus](mailto:getxoarte@getxo.eus)

**Kontzertua.** 20:00etan, Algortako Salbatzailearen elizan, XX-XIX. Abesbatza Zuzendaritzako Akademiako ikasleen amaiera errezitaldia, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatua. Sarrera dohainik edukiera bete arte.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: egin ezazu Tetriza (3 urtetik gorantz). [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

## UZTAILAK 18 IGANDEA

**36. Nazioarteko folklore jaialdia.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, Trim the Velvet (Ipar-Irlanda). Sarrera: 3€.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-13:30. Helduentzako tailerra: udako kosmetika Garbiñe Bellosorekin. [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

## UZTAILAK 24 LARUNBATA

**Antzerkia.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Desfasando, que es gerundio", Lalulu Teatrorrekin. Sarrera: 12€.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: egin ezazu zure izurde eta bale panpinak, Izurdeen eta Baleen Munduko Eguna ospatzeko (6 urtetik gora). [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

## UZTAILAK 25 IGANDEA

**LXVI Nazioarteko Paella Lehiaketa.** Streaming bidez #Paellak2021 traolaren eta Itxas Argiaren sare sozialen bitartez: Instagram @itxasargiagetxo eta Facebook ITXAS ARGIA. 12:00etatik aurrera. Algortako komertzioaren eta tabernetan pañeluak salmentan daude. Egunaren azken orduan, sari-banaketa streaming bidez.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-12:00 eta 12:00-13:30. Ziribirika: inguruko tximeletak ezagutzeko jardura autogidatua (6 urtetik gora). [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

# Migrazioen Harrera eta Arretarako Bulegoa inauguratuta

Udalak Migrazioen Harrera eta Arretarako Bulegoa inauguratu du Gobelaurre Boluntarioria zentroan (Romoko Txabarri Zuazo plazan). Bulegoak hasierako harrerari erantzuna emango dio, inklusio soziala kontutan hartuta. Amaia Agirre alkateak uste du "lehentasuneko proiektua da udalerrirantz eta inklusioa finkatzeko, Getxo hiriri abegitsu gisa sendotzeko beste bultzada bat, Legegintzaldiko Planaren ardatzetako bat izanda, harrera erantzukizun publikoko gaitzat hartuta, hirietako elkarbizitza eta kohesio soziala sustatzera laguntzen duena".

Bulegoak pertsonak orientatuko ditu migrazio-prozesuetan, eta baliabideei buruzko informazioa emango du, atzerriartasunari eta nazionalitateari, eta Etxeko Lanari eta Zainketei buruzko aholkularitzarekin batera. "Harrera ez da iristen den unera bakarrik mu-



gatuko, beharrezkoa izan daitekeelako bizitzeko hainbat unetan. Hainbat norabidetan ulertutako zerbitzua izango da, eta horregatik Getxoko herritarrei ere atzerriartarrak kontratatzeari buruzko informazioa eskainiko die, bai eta emigrazio-proiektuak dituzten pertsoneri ere", zehaztu du Carmen Díaz, Gizarte Kohesio zinegotziak.

Bulegoak aurrez aurreko arreta astelehen eta asteartean 10:00etatik 14:00etara,

eta asteazkenetan 16:00etatik 20:00etara, eskainiko du. Aldez aurretik hitzordua eskatzea gomendatzen da, itxaron behar ez izateko, [oficinaacogida@getxo.eus/harrerabulegoa@getxo.eus](mailto:oficinaacogida@getxo.eus/harrerabulegoa@getxo.eus) emailaren edo 94 4660152 eta 747 424 287 telefono zenbakien bitartez. Asteazken eta ostiraletan arreta telematikoa izango da, (telefono, WhatsApp, bideo deiaren bidez). Ostegunak zerbitzu berezituak eskainiko dira, aurretiko hitzorduarekin.

## Abian da "Algortako dendak, zugandik gertu" kanpaina

Algortako Dendak elkarteak osatzen duten establezimenduek, Udaleko Ekonomia Sustapenerako Sailaren laguntzarekin, Getxo, eta, zehazki, Algorta, hiriko merkataritzaren erreferentziako gunegisa kokatzeko kanpaina bat jarri dute abian. *Algortako dendak, zugandik gertu* leloarekin, elkartearen 70 saltokien zerrenda eta argazkiak biltzen dituzten 7.000 mapa argitaratu dira, atxikitako establezimendu guztietan aurki daitezkeenak. Gainera, kanpainaren euskarri guztiek QR kode bat dute, mapa interaktibo batera bideratzen duena. Bertan, saltokiei buruzko informazio guztia dago (helbidea, sare sozialak, produktuen



kategoria). "Horren bidez, zonaldeko negozio-mota ugari ezagutzera eman nahi dira, erosketak egiterakoan oinezko ibilbideak sustatzearekin batera", elkartek adierazi duenez, bestalde, bere webgunean ari da lanean. Elkar-

teak elkartearen negozioei buruzko datu interesgarriak jasoko ditu, baita kanpainari eta berrikuntzei buruzko informazioa ere. Informazioa: [algortakodendakanpainak@gmail.com](mailto:algortakodendakanpainak@gmail.com) eta 94 471 36 01 telefonoan.

## Tokiko negozioen aurrez aurreko eta urrutiko salmentak bultzatzeko akordioa

Getxo Enpresak eta Kutxa-bankek urteko akordioa sinatu dute tokiko negozioei pandemiaren ostean ekonomiak bizi duen susperraldia erabiltzen laguntzeko. Iraunkortasuna eta digitalizazioa dira sektorearen erronka nagusiak, eta erosketa-ohitura berriei eta "nor-

maltasun berriari" erantzun behar die. "Akordioak irtenbide jakinak erraztuko ditu: bezeroekin saltzeko eta komunikatzeko bide berriak, hainbat tamainatako negozioetarako eta fakturazio-bolumenetarako diseinatutako tresnen bidez, bai eta ordainketa digitalerako sistema berrien

bidez" horixe ziurtatu dute Getxo Enpresatik. Horien artean 'Bizum Negocios' sistema nabarmentzen da, txartelekin ordaintzeko terminalik ez duten edo sistema horrekin urrutiko kobrantzak egin nahi dituzten saltoki eta autonomoentzat diseinatu dena.



- Ohe artikulatua **saltzen dut.** Astebeteko erabilera. Tren jasotzailea eta txertatzailea. Mugimendu guztiekin agintea. Tel.: 657 734 171.

- **Lan bila nabil** lanaldi osokoa edo ordukakoa, garbiketa egiteko edo adinekoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 632 411 553.

- Zinta ibiltari elektrikoa **erosi nahi dut** Tel.: 661 54 39 61.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Ainhoa Galduroz**  
Zuzendaria: **Javier García**.  
Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**.  
Erredakzioa: **Nekane Ardanza**.

**Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.**  
Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo.  
e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus)  
Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao, S.L.**  
Inprimaketa: **Comeco Gráfico Norte, S.L.U.**  
Banaketa: **Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua**  
Gordailu legala: **BI-388-87**

Irailaren 2tik 26ra izango da

## GETXOPHOTO, Nazioarteko Irudi Jaialdia aurkeztuta “Elkarbanatu” lelopean

GETXOPHOTO Nazioarteko Irudi Jaialdiak bere hamabosgarren edizioa aurkeztu du aste honetan, *Elkarbanatu* lelopean. Aurten Jaialdia irailaren 2tik 26ra egingo da, eta beste urte batez, artista ospetsuak izango dira bertan. Beren lanak Erea-ga-Portu Zaharrean, Algortako erdigunean eta oraingoan Romo-Areetan ere erakutsiko dituzte.

Begihandi taldeak bultzatuta, Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin, beste entitate batzuen artean, GETXOPHOTO Jaialdiak hunkitzen gaituzten gaiari aurre egiteko bide bezala ulertu izan du beti irudia. Jaialdia pentsaera kritikoa pizteko eta gizartearekin elkarriketa bat abiatzeko plataforma da.

The Photographers' Galleryko (Londres) komisario digitala den Jon Uriarte hondarribitarrak, GETXOPHOTOren zuzendari artistikoa izango da aurten ere. *Elkarbanatu* lelopean, Jaialdiak informazioaren irisgarritasunak, migrazio-fluxuek eta desberdintasun ekonomikoek menderatutako mundu batean partekatzearen ideiak izan ditzakeen esanahi berriak aztertuko ditu.

Jaialdiak, antolatzaileen arabera, edizio gardena eta parte-hartzailea aurkeztu du, espazio publiko fisiko eta digitalean esku hartze eta erakusketekin.

Txosten osoa:

<https://www.getxophoto.com/eu/>



River Claire, Wararwar wawa



Amaia Agirre alkatea eta Jokin Aspuru, GETXOPHOTO Jaialdiaren zuzendaria



Mark Dorf, Projection

## Abian da “Juana Bizkarra” Arte eszenikoen sormena bultzatzeko egonaldia

Abuztuaren 7ra arte zabalik egongo da *Juana Bizkarra* arte eszenikoak sortzeko lehen egoitza-beka eskuratzeko izena emateko epea. Getxoko Kultur Etxeak arte eszenikoak sortzeko lehen egonaldi-beka deitu du konpainia profesional, sendotu eta sortu berrientzat, Juana Bizkarra izeneko, getxotar askoren seme-alabak hezi eta hazi zituen bertoko ume-zaintzaile getxotarraren omenez. Egonaldiaren zenbatekoa 10.000€ izango da.

Bekaren bitartez euskal kultura sektoreari lagundu nahi zaio, espazio profesionala, baliabideak eta zuzkidura ekonomikoa eskainiz antzerki-lanak, obra

koreografikoak, eszenikoak edo performatiboak ekoizteko eta muntatzeko. Aldi berean, sormen-prozesua Getxoko herritarrei hurbildu nahi zaie, kulturaren duten ezagutza, esperientzia eta parte-hartzea hobetze aldera. Egoitzan, gainera, hiru topaketa egingo dituzte Getxoko herritarrekin eta herriko taldeekin. Azken horien kasuan, konpainia profesionalen eta tokiko kultura-sektorearen arteko elkarrekin-tza sustatu nahi da.

Hautatutako ikuskizuna ekoitzi eta muntatzeko, eta horren bitartekotza-plana garatzeko epea 4 astekoa izango da. Egonaldia Muxikebarrin izango da eta 2021eko urrian estreinaldirako



bi emanaldi eta obraren entsegu orokor ireki batekin amaituko da.

Beka jaso ahal izango du bere jardueran arte eszenikoen barruan garatzen duen edozein pertsona juridikok, hala nola antzezlanak, koreografikoak, eszenikoak edo performatiboak muntatzen dituzten antzerki-, dantza-, txotxongilo- eta zirku-konpainiek. Deialdiari buruzko informazio osoa [www.getxo.eus/juanabizkarra](http://www.getxo.eus/juanabizkarra). webgunean dago eskuragarri eta, edozein galdera egin nahi izanez gero, interesdunek honako helbide elektronikora jo dezakete: [programazioa@getxo.eus](mailto:programazioa@getxo.eus).

# “Fhimasa Escuela de Vela José Luis de Ugarte” izenekoak gazteen munduko txapeldun titulua lortu zuen berriro “Biobizz Getxo”, munduko J80 txapelketako txapeldunordea Danimarkako uretan

Jose Azqueta eta “Biobizz Getxo” ontziko tripulazioa txapeldunorde geratu dira J80 klaseko munduko txapelketan, Danimarkan. Real Club Marítimo del Abra - Real Sporting Clubeko ontziak ezin izan zion aurreko bidaldietako lidergoari eutsi, eta bigarren postuan amaitu zuen, Pablo Santurderen “NeWind Foods” kantabriarretik hiru puntura, azken eguneko lehen txandan “Biobizz Getxo” deskalifikatu ondoren, kexuak zirela eta. Azqueta eta bere tripulazioa (Juan Manuel Barrionuevo, M<sup>a</sup> Sánchez,



Tripulazio irabazleei harrera Abrako Itsas Klubean, Amaia Agirre alkatea bertan dela

Jon Ortega eta Jaime Oliva) ez-tia ezpainetan zutela geratu ziren Rungstedeko uretan, “ureko txapeldun” izatearen sentsazioarekin. Gainera, “Fhimasa Escuela de Vela José Luis de Ugarte” izenekoak (Tomás Trueba, Silvia Marcé, Perico Basterra, Nicolás Viar eta Manolo Rey-Baltar) gazteen munduko txapeldun titulua lortu zuen berri. Bi tripulazioek klubaren omenaldia jaso zuten asteartean. Kluba itsasontzi klasikoan eta garaikoen *Copa Gitana* izeneko antolatzen ari da asteburu honetarako Abrako uretan.

Udalerrria “Helmuga Seguru” gisa ere sustatuko da

## “Getxo Bihotzetik”, gaualdiak eta bisitarien egonaldia areagotzeko proiektua

Udaleko Ekonomia Sustapen Saileko Turismo unitateak *Getxo Bihotzetik* jarri du martxan, turistaren eta bisitarien gaualdiak eta batez besteko egonaldia areagotzeko estrategia diseinatu nahi duen ezohiko proiektua. Proiektuak 86.000€-ko inbertsioa izango du eta Getxo Ekinez planean sartuta dago, epe labur eta ertainean COVID-19ren ondorio sozioekonomikoari aurre egiteko.

*Getxo Bihotzetik* ekimena tokiko enpresa-sarearekin eta udalerriko intereseko beste eragile batzuekin lankidetzan garatzen ari da, eta Enpresen Aholkularitza Foroak lehenetsitako proposamen batzuei erantzun nahi die. Irantzu Uriarte Turismo zinegotziak adierazi duenez, “proiektu honek helburu hirukoitza du: *ostatu-gauak areagotzea; Bilbo-Bizkaiko enpresei MICE zerbitzuak eta baliabideak ezaguta-*

*raztea (bilerei, biltzarrei, konbentzioei, azokei edo bestelako ekitaldi profesionali lotutako zerbitzuak); eta estatuko eta nazioarteko kalitatezko talde berriak Getxora erakarzea”.*

Urte amaierara arte garatuko den proiektu honen jardura-ildo nagusiak honako hauek dira: zehaztea nola proiektatuko den eta udalerrira zer erakarri nahi den, Getxo markaren balioak identifikatuz eta gure produktuak eta zerbitzuak kokatzen lagunduko duten “istorioak” sortuz; laguntzea negozio- eta/edo zerbitzu-eredua berrikusi nahi duten enpresei; abian jarritzea online komunikazio- eta merkaturatze-kanpaina bat, eta antolatzea alderantzizko merkaturatze-jardunaldiak: aurrez aurreko 5 fam-trip (operadore turistikoari edo bidaiari-agentziei eskaintzen zaizkien kortesiazko bidaiak) eta 10 topaketa birtual.

*Getxo Bihotzetik* proiektuan Getxoko edozein enpresak har dezake parte (informazioa: [visit-getxo@getxo.eus](mailto:visit-getxo@getxo.eus)).

### Getxo, helmuga segurua

Era berean, Getxo Ekinez planaren barruan, Turismo unitateak 15.000€ inbertituko ditu sustapen-kanpaina bat egiteko *Helmuga Segurua* sektorearekin. Turistei eta bisitariari zuzenduta, helburua da segurtasuna sustatzea, hartutako osasun-neurrien bidez, modu irisgarrian eta errazean. Hainbat euskarraren bidez (bideoak, publizitatea bide publikoan, triptikoak, kartelak...) , osasun publikoan eskumena duten agintariak COVID protokoloari buruz gaur egun ematen dituzten gomendioak eskuratzeko aukera emango zaie, baita ohiko bizilekura iristeko, egoteko eta itzultzeko ezartzen diren eragiten duten neurri espezifikoa ere.

## Arrauneko ligako seigarren jardunaldia

Getxok hartuko du igande honetan Getxoko Estropaden XLIII Ikurriña (Jose Antonio Agirre Lehendakariaren XVII. Omenaldia). Emakumezkoen Euskotren Ligako estropada eta gizonezkoen Eusko Labela eskainiko dira, ACTk antolatuta, Getxo Arraun eta Getxo Kirolak-en laguntzarekin. Emakumezkoen proba 11:40ean hasiko da eta ondoren gizonezkoena. Beteranoen txapelketa 13:45ean izango da. Covid-19aren osasun-krisia dela eta, probak antolatzean eta ikusleentzako presentziari dagokionez oso kontrolatutako ekitaldia izatea da helburua. Modu horretan, eta ACTk azaltzen duen bezala, zaleei probak telebista bidez ikustea gomendatzen diete, eta gerturatzeko direnei gogorarazten zaie beharrezkoa dela banakako presentzio-neurri guztiak hartzea, hala nola maskara erabiltzea eta pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia gordetzea.

# Egunero plan bat

22€-tik GORA

6€-tik GORA

3€-tik GORA

Getxo bizi ezazu Turismo


944 91 08 00 / [www.getxo.eus/planak](http://www.getxo.eus/planak)

# Udalak sufrimendu emozionala eta nahi gabeko bakardadea arintzeko “Activa tu comunidad” eta “Getxo Zurt!” ekimenak bultzatuko ditu

Getxoko Udalak *Activa tu comunidad* eta *Getxo Zurt!* ekimenak bultzatuko ditu udalerrian, *Getxo contigo-Getxo zurekin* izeneko proiektuaren barruan, 15.000€-tan, pandemiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko den *Getxo Ekinez* proiektuko funtsen bidez. Zenbateko hori Udalak nahi gabeko bakardadeari lotutako programara zuzendutakoaren parte bat da. Ekimenek, duela hilabete batzuk Doble Sonrisa Fundazioak abian jarritakoek, “inguruko hurbilean bizi diren pertsonak zaintzeko eta artatzeko ekintzetan herritarren parte-hartzea sustatzen dute, egoera emozionala eta bizi-kalitatea hobetzeko, batez ere gaixotasun, bakardade edo dolu egoeran dauden pertsonenak”, azaldu du Carmen Díaz Gizarte Kohesioeko zinegotziak.

## “Activa tu comunidad”

*Activa tu comunidad* ekimenaren bidez, herritarrak kontzientziatu eta mobilizatu nahi dira, nahi gabeko gaixotasun-, heriotza-, dolu-, sufrimendu- eta bakardade-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruz. *Getxo Zurt!* ekimenarekin asmo handiko helburu simple bat partekatzen du, hain zuzen ere, herritarrak kontzientziatzea zainketak eta laguntza pertsona guztien kontua direla. “Gure ingurune sozialarekiko erantzukizun indibiduala da. Zaintza eta laguntza funtsezko zutabeak dira gizarte kohesionatuagoa eta solidarioagoa eraikitzeko. *Activa Tu Comunidad* eta *Getxo ZURT!* erreminta bi dira Getxoko herritarrek elkarri aurpegi zuzenean begira diezaioten, elkarri aitortzea eta eragitea helburu



duten ekimenak, pertsona guztiak beharrezkoak baikara sufrimendua zeharkatu eta gainditzeko”, azaldu du Naomi Hasson *Getxo contigo-Getxo zurekin* ekimeneko arduradunak.

Zaintza-sareak sortzeko antolatutako ekintzen artean, hitzaldiak, tailerrak, prestakuntza-programak, topaketa- eta

dolu-taldeak eta errukia lantzeko entrenamendua egiten jarraituko da. Hurrengoak *Kafea lagunartean* izango dira, astelehenera, 10:30etik 12:30era; *Comunidades de vecinos/as* hitzaldia uztailaren 15ean, 17:00etan, Romo Kultur Etxean; *Death Cafe* uztailaren 21ean, 18:00etan, Algortako Pipers tabernan, eta Doluko laguntza izeneko tal-

dearen hurrengo bilera irailean izango da.

## “Getxo Zurt!”

Bestalde, *Getxo Zurt!* ekimenak herritarrak mobilizatu nahi ditu Getxoko suizidioaren prebentzioan, lanketan eta ostean (ondorengo laguntza), osasun publikoaren ikuspegitik. Horretarako, ekimenak prestakuntza-saioak eskaintzen ditu, *Suizidioaren prebentzioa eta esku-hartzea* izenburupean. Orain arte, 50 pertsonak hartu dute parte bi saiotan eta hurrengoak uda ostean izango dira, suizidioaren errealitatea modu sentikor eta arduratsuan ikusarazteko hainbat ekintzarekin batera. “Arazo ekonomikoek, bakartasunak, depresioak...min psikologikoa eragin ditzakete. Horrek konponbidea du eta horregatik sufrimendu psikologikoa pairatzen ari den pertsonak igortzen dituen alarma seinaleak aurreikus-teko gai izan behar gara. Min psikologikoa arintzeko existitzen diren laguntza-baliabideak ezagutu behar ditugu eta hori da *Getxo Zurt!*en helburua, herritarren min psikologikoa atzematen komunitate trebea hezitzea eta horregatik getxotarrak bat egitera animatzen ditugu”, azaldu du Jon García, *Getxo ZURT!*eko ekimeneko arduradunak.

*Getxo zurekin* proiektuak 300 boluntario baino gehiago dituen sare soziala du une honetan. *Activa tu comunidad* ekimeneko prestakuntza edo jardueraren batean parte hartu nahi duten pertsonak harremanetan jar daitezke 679019838 telefonoan eta [naomihasson@doblesonrisa.com](mailto:naomihasson@doblesonrisa.com) helbidean, eta 679019838 telefonoan eta [getxozurt@gmail.com](mailto:getxozurt@gmail.com) -en bidez *Getxo Zurt!*-en.

## Tutoretzapeko bi apartamenturen birmoldatzea

Udalak tutoretzapeko bi apartamentu eraberritzen hasi da, Romoko Luis López Osés kaleko 3. zenbakian, 30.000€-ko aurrekontuarekin, eta horietatik 22.000€ pandemiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko aurten abian jarritako *Getxo Ekinez* proiektutik datoz. Bi apartamentuak hutsik geratu ondoren eraberritu eta egokitzen ari dira, 2007an inauguratu zirenetik okupatuta egon ondoren, eta berriro okupatu aurretik. Horietan igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea eta sukalde, komun eta altzariez hornitzeko lanak egingo dira. Apartamentuak etxebizitza auto-

nomoak dira, pertsona bakarrarentzat eta/edo bi lagunentzat, I. graduako mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzat. Horien



helburuak dira erabiltzaileek komunitate-ingurunean jarraitzea erraztea, beren autonomia-maila hobetzea, isolamendu-egoerak saihestea eta segurtasun-sentimendua erraztea.

Apartamentuek logela bikoitza, bainugela egokitua eta sukalde-egongela dituzte.

Berritu beharreko apartamentuak Luis Lopez Osés kalean dauden 28 pertsonetatik bi dira. Une honetan, bi horiez gain, beste bat ere prest dago, jendea sartzearen zain. Bestalde, Udalak beste 11 apartamentu ditu Algortako Juan Bautista Zabala kalean, eta 14 pertsona bizi dira bertan.

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, ENTZUTE AKTIBOA

Duela bi urteko maiatzean, Getxoko herritarrekin hartu genuen konpromisoaren hastapenetan, Euzko Alderdi Jeltzaleak - Partido Nacionalista Vasco eta Amaia Aguirrek zuzendutako taldeak herritarrei aurkeztutako hauteskunde programa horrela hasten zen: "Gure ametsa Getxo sustatzen jarraitzea da, eta zurea? Getxorentzako proiekturik onena prestatu dugu, Getxoko gizarte osoari entzun ostean: merkatariari, ekintzaileari, elkarteari, kirol taldeari, gazteari, nagusiei..."

Entzute aktiboa, parte-hartzea, gardentasuna, gobernu irekia... Herritarrei erantzunak ematen dizkion gobernatzeko modu aurrerakoi baten adibideak dira. Eta adibide zehatz eta nabarmenez gabiltza: duela egun gutxi Villamonten garatutako Getxo Txukun programak 200.000 euroko aurrekontua izango duela baieztatu zen. Hala, "Getxo Txukun" izeneko partaidetza prozesuaren bidez herritarrek emandako iradokizunei eta proposamenei erantzun eman zaie Getxoko Udaletik. "Auzoz auzo, kalez kale. Barrio a barrio, calle a ca-



lle". 200.000 euroek Villamonte-Hezetasuna inguruetaiko segurtasuna, irisgarritasuna eta argiztapena hobetzeko beharrei erantzun dio, bertako herritarrek egindako ekarpeni eta Getxoko Udalak beraien eska-

kizunei prestatutako arretari esker. Herritarren parte-hartzeari erantzuna ematen zaiola frogatzen duen aurrekontuaren eta inbertsioaren beste adibide argi bat daukagu. Zehazki, 2022ko parte-hartze izaerako aurrekontuen miloi bat euroak. 2022ko parte-hartze izaerako aurrekontuen bidez, Getxoko biztanleek guztiontzako proiektu interesgarriak diren bideratzea aukeratu duten miloi bat euro: Getxoko parke bat estaltzea, kostaldeko pasealekuak hobetzea, berraktabazio soziokulturalerako programa berezia martxan jartzea, bide publikoen ibilbidea egitea eta kontzientzia feminista indartzeko ekintzak.

Gure hauteskunde programako konpromiso estrategikoa hurrengo hau izan zen azken hauteskundeetan: "Getxo, gardentasunaren eta partaidetzaaren eredu. Herritar guztien partaidetza eta udal administrazioak gardentasunez kudeatzea bultzatzen da, eta herritarrei arreta ona eta eraginkorra ematea. Gobernu Irekiaren alde egiten dugu apustu, hau da, ekintza publikoko eredu konprometitu eta arduratsuen alde, eta horren bidez, herritarrekin harreman hobea eta hurbilekoagoa izatea lortu nahi dugu. Printzipio etikoak erantsi ditugu: kudeaketa arduratsua, zorrozatasuna, zintzotasuna eta errespetua".



## HARTUTAKO KONPROMISOAK BETETZEA



Gure gobernu taldeari ahoa betetzen zaio parte-hartze izaerako aurrekontuez hitz egiten duenean. Hala ere, herritarrek maiz errepikatutako eskaerak behin eta berriro alde batera nola uzten diren ikusten dugu. Hori gertatzen da, adibidez, edukiontzien pedalaren instalazioarekin edo Areetako geltoki plazako berrikuntza lanekin.

Azken hori 2018ko eta 2020ko aurrekontuetarako aukeratu izan zen, baina gaur egun oraindik errealitate bat izan gabe jarraitzen du. Horregatik guztia-gatik, hurrengo osoko bilkuran Gobernu taldeak gutxienez parte-hartze izaerako aurrekontu hauetan onartutakoa betetzeko eskatuko dugu. #esnatugetxo



## MUNDU GUZTIAK EZ DITU ZUEN SOLDATAK



Ikasturte politikoa amaitzean dagoen honetan, imajinatzen dugu Udal Gobernuak lasaitasunez hartuko dituela oporrak, etxerako lanak eginda uztearen sententziarekin. Izan ere, azken osoko bilkuran euren soldatak blindatzea onartu zuten: alkatearena (83.000€), bozeramaileak (70.000€), aholkulariak (57.000€), zi-

negotzi liberatuak (55.000€)... Hori bai, Udalak hiru urte behar izan ditu 2018 eta 2019 urteetako gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak kaleratzeko, eta oraindik ez ditu 2020. urtekoak kaleratu. Hemen garrantzitsuena politikariaren soldatak blidantzea da, ez besterik. Lehentasun kontua da.



## HARRERARAKO UDAL BULEGO BERRIA

Migrazioen harrerarako eta arreta emateko Getxoko bulego berria inauguratu dugu aste honetan. Azken 20 urteetan gure hiriko gizartearen osaera nabarmen aldatu da. Munduko beste toki



batzuetan jaio-tako enehuneko bost puntu igo da, guztien % 11 izatera heldu delarik. **Aniztasuna herri moduan aberasten gaituen errealitate bat da**, gure udalerrizentzako abantaila bat da eta modu proaktiboan jokatu behar

da gizarte bateratua eta inklusiboa lortzeko. Bulego berri hau etorkinak jasotzen dituzten gizarteek dituzten oinarriko erronketako bati erantzuna ematen dion tresna bat da. Bulego honen bidez harrera kudeatuko da, etorkinen gizarte inklusioa bermatzeko. **PSE-EEtik Harrera Bulego berri honen irekierak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu**, harrera bulego hau gure hauteskundeetako konpromisoaren 20-23 Legealdiko Planaren 10 puntuetako bat delako, Getxo izatea nahi dugun hiriaren 10 ardatzetako bat izateaz gain.



## BOLUE BERRESKURATU, GURE BIODIBERTSITATEA ZAINDU

Bolueko hezegunea, euskal kostaldeko ur gezako bakarra, desagertzeko arriskuan dago bere ondoan gertatzen ari den lokatz eta sedimentuen metatzeagatik. Garbiketaren erantzukizuna URARENA eta Foru Aldundiarena da, baina irizpide ezberdinen ondorioz 3 urteko atzerapena darama. Badakigu Udalak ur erreserba berreskuratzeko borondatea era-

kutsi duela, baina ez du inolako eskakizun formalik egin. Horregatik, Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaiako gure kideekin batera, erakunde erantzuleari eskatu diegu lanari ekiteko eta hezegunea eta bere biodibertsitatea babesteko beranduegi izan arretirik adostasun batera heltzeko. Harremanetarako: 944660290 [elkarrekinpodemos@getxo.eus](mailto:elkarrekinpodemos@getxo.eus)